GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Arloa

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Euskera Zuzendaritza

GERNIKA-LUMO • 2003. URTEA • *BIK Bigarren Idazlan Koadernoa* • Lehen Hezkuntza

# GERNIKA-LUMO
## 2003. URTEA




Lehen Hezkuntza

*Argitaratzailea:*
- *Gernika-Lumoko Hezkuntza Arloa.*

*Laguntzaileak:*
- *Allende Salazar Ikastetxea.*
- *Barrutia Eskualde Ikastetxea.*
- *La Merced Ikastetxea.*
- *San Fidel Ikastola.*
- *Seber Altube Ikastola.*

*Portadaren egileak:*
- *Jose Ramon Castillo*

*Babesleak:*
- *Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Arloa.*
- *Bizkaiko  Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza).*

*Maketazioa eta Inprimaketa:*
- *GRAFICAS AMOREBIETA.*

*2003ko edizioa.*

# AGURRA

## KIMUAK LORATZEN DIRENEAN

*Berri pozgarria aurten ere!. Bigarren urtez, idazlan saila eskaintzeko aukera dugu esku artean.*

*Sarritan esaten dugu euskararen presentzia areagotzen ari dela, baina argi eduki behar dugu haurrei eta gazteei hizkuntza sakonki bizi arazten irakasten ez bazaie, hankamotz gerta daitekeela uste hori. Ikastolan eta ikastetxean egunero lantzen diren idazlanak garrantzia nola duten ikusi, eta horietako batzuk liburu landu eta txukunean jasotzen direla ikusteak, lan idatziaren garrantziaz jabetzen lagunduko die.*

*Bai helduentzat eta, jakina, haurrentzat, xarmangarri gertatuko den idazti bilduma hau irakurtzen bultza nahi zaituztet, ziur naizelako aldi gozo eta atsegina bizi izango duzuela irakurketak irauten duen bitartean.*

*Aurtengo idazlan koaderno honetan parte hartu duzuen guztioi, bereziki eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet, eta, nola ez, irakasleei, fruitu honen haziaren eguneroko zaindariak zaretelako.*

*Nire aldetik eta agurtzeko, bakarrik esan iaz esaten nuena: guztion lanari esker, datorren ikasturtean HIK (Hirugarren Idazlan Koadernoa) argitaratuko dugula.*

*ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO irakurle guztion izenean.*



*Kepa Butron*
*Hezkuntza Arloko Zinegotzia*

# AURKIBIDEA


| | | | |
|---|---|---|---|
| Angela Lopez Rafael | L.H. 2. maila | *Kotxe magikoa* | 5 |
| Gorka Otxandio | L.H. 2. maila | *Harrizko erraldoia* | 6 |
| Eneko Goikolea, Jon Aboitiz, Eneko Peña, Aloña, Gorka Uriarte, Josu Zabalbeascoa, Martin Elgezabal, Gontzal Carrasco, Irati, Leire Urberuaga, Estibaliz, Jon Arrien, Garazi Gabaldon, Jon Lapresa, Mikel, Eneritz Iturbe, Mireia. | L.H. 2. maila | *Txakurrak eta untxiak* | 7 |
| Annette Unda | L.H. 2. maila | *Printzesa eta txakurra* | 10 |
| Irati Oria Ikaran | L.H. 2. maila | *Txantxan gorria basoan* | 11 |
| Ane Miren Arejita | L.H. 2. maila | *Basoko zuloa* | 12 |
| Aitzol Onaindia | L.H. 2. maila | *Lehoia eta bi saguak* | 13 |
| Aimar Ellis Luzarraga | L.H. 2. maila | *Siberian izoztutako dinosauroak* | 14 |
| Ibon Etxegarai Arana | L.H. 2. maila | *“Pinki” nire txakurra* | 16 |
| Ane Camara Barrenetxea | L.H. 3. maila | *Izurdeak eta marinelak* | 18 |
| Ainhoa Celaya, Janire Intxausti , Elisabeth Vellisca | L.H. 3. maila | *Sorgin gaiztoa* | 20 |
| Dani Basterretxea, Unai Intxausti, Beñat Zabalgauregi | L.H. 3. maila | *Txakurrak* | 23 |
| Kevin Aguirre | L.H. 3. maila | *Azeria, gizakia eta tximeleta* | 25 |
| Iker Bilbao Ugarte | L.H. 3. maila | *Elurretako jauna* | 27 |
| Itsaso Zabala | L.H. 4. maila | *“Misi” katu kutuna* | 29 |
| Alexander Herrero | L.H. 4. maila | *Mamu bakartia* | 33 |
| Ane Gartzia Rivero | L.H. 4. maila | *Itsaso* | 35 |
| Joana Gerekiz | L.H. 4. maila | *Gotzon eta animaliak* | 37 |
| Jon de la Fuente | L.H. 4. maila | *Hiri ezkutua* | 39 |
| Pablo Gabilondo | L.H. 5. maila | *Itsasoa galdua* | 41 |
| Aaron Balda | L.H. 5. maila | *Mamuen askatzailea* | 44 |
| Leire Echeberria Bilbao | L.H. 5. maila | *Hankamehe* | 47 |
| Maria Calleja Felipe | L.H. 6. maila | *Bizkor heroia* | 50 |
| Oihane Sastre Aldana | L.H. 6. maila | *Dinosaurioa ikusi dugu* | 53 |
| Irati Martinez Aguirrezabala | L.H. 6. maila | *Baso sorgindua* | 56 |
| Garazi Olazar Natxiondo | L.H. 6. maila | *Jon eta haitzuloko altxorra* | 59 |
| Leire Naberan | L.H. 6. maila | *Afrikatik Euskal Herrira* | 64 |
| Antxon Bizkarra Gantxegi | L.H. 6. maila | *Olentzero esku zabala* | 67 |
| Amaia Goitia Iraeta | L.H. 6. maila | *Gabon bidaia* | 70 |



**Angela Lopez Rafael**

"Nik futbola atsegin dut eta marrazkiak egitea guztatzen zait"

# Kotxe majikoa

Bazen behin sorgin bat Kotxe dotorea zeukana.
Mari izeneko sorgin hau etxe zahar batean bizi zen.
Marisen Kotxea gorria zen eta bere erratza haundia. Egun
Batean Kotxea hartuta erosketak egitera joan zen Mari Erosketara.
Hemen, pote majiko bat erosi zuen baina, zoritxarrez, etxera
itzultzerakoan, Konturatu gabe potea lurrera
jausi zitzaion. Biharamunean, Mari sorgina,
Kotxera joan zenean, honek esan zion:



-Egunon Mari sorgina!
Gero Kotxean montatu zenean, hau bakarrik hasi zen
mugitzen. Orduan Mari sorgina Karatuta alde guztietara
begiratzen zuen. Kotxe barruan potea zabalik eta apurtuta
zegoela eta pedaletan bi martziano txiki zeudela autoa gidatzen
Konturatu zen eta Marik berehala jakin zuen majia zela.
Hauek majikoak batu eta hala amaitu zen Mari sorginaren
abentura zoragarria.

Angela Lopez Rafael 2. maila.





**Gorka Otxandio**

"Nire ametsa futbolari trebea eta ospetsua izatea da"



# Harrizko Erraldoia

Gaztelu zahar batean detektibe batek harrizko erraldoi bat egin nahi zuen. Harriari detektibeak pozoia bota zion eta benetako erraldoi bihurtu zen. Detektibeak magia erabiliz erraldoiari ezanak betearazten zizkion. Inguruko jendea dardarka zegoen erraldoiaren neurria ikusterakoan, oso handia zelako.

Egun batean, detektibea liburu bat irakurtzen zegoen bitartean, erraldoia gaztelutik irten eta herrirantz abiatu zen. Bere barruan zerbait arraroa gertatu zenez, bidean aurkitzen zituen etxe guztiak apurtzen zihoan.

Herrira heldu orduko, zubi zahar bat gurutzatu behar zuen. Erraldoia zeharkatzen zegoenean zubiak Krank! egin eta amildegi beherantz abiatu zen. Detektibeak erraldoiaren amaiera ikusi ondoren beste esperimentu bat egiteko gogoak kendu zitzaizkion.

Gorka Otxandio

2 maila.

Eneko Goikolea, Jon Aboitiz, Eneko Peña, Aloña, Gorka Uriarte, Josu Zabalbeascoa, Martin Elgezabal, Gontzal Carrasco, Irati, Leire Urberuaga, Estibaliz, Jon Arrien, Garazi Gabaldon, Jon Lapresa, Mikel, Eneritz Iturbe, Mireia.





Txakurrak eta untxiak

Baten behin sasoi batean txakurrak eta untxiak oso lagun onak zirenak. Egun bate txakurrak eta untxiak paseatzera joan ziren Mendian gora doazela pinadi baten azpian eseri ziren deskantzatzeko. Txisteak eta ipuinak kontatzen ari zirela goitik pinabolak erortzen hasi ziren.

- Nor izan da? esan zuen txakur beltzak
- Ni ez erantzun zion untxi zuriak.

txakurrak eta urtxoak batak besteari zaunkaka hasi ziren. Halako batean pila bat pinabola erori zitzaien haien gainera. Pinu artean milaka urtxintxa zeuden.

- Burruka egingo dugu - esan zuen Zuri txakurrak.
- Bai, ondo apuntatu - oihukatu zuen untxi lodiak.

Baina urtxintxak oso bizkorrak ziren eta saltoka alde batetik bestera zebiltzan.

Orduan lurreko animaliak ikusirik galduta zeudela, handik alde egitea erabaki zuten.



Basoan zehar zihoazela aintzira bat ikusi zuten. Eta untxiek esan zuten:

- Zuek bainatu. Guk zerenak ikusiko ditugu.

Uretan sartzeko, txakurrek zapatak kendu zituzten eta untxiak txakurren zapatak hartu eta joan egin ziren.

Txakurrak atera zirenean konturatu ziren untxien gaiztakeriaz.

Horregatik ordutik aurrera txakurrak beti dabiltza untxien atzetik korrika.

~~Abas~~ A
Eneko Peña.
ENEKO ~~Goitolea~~
Jon ~~Abaitua~~
Gorka Uriarte
Iosu Zaballa...
Martin Elgezabal
Gontzal Carrasco
~~Irati~~
Leire Urtamuga
Estitxu
Garazi
Jon Carreno
Jon Laprea
Gabaldon
Miriam
Mikel
Eneritz Etxabe





**Annette Unda**

"Niri ipuinak gustatzen zaizkit, baina gehien gehien... ipuinak idaztea"

Annette Unda

# PRINTZESA ETA TXAKURRA

Behin batean printzesa bat bizi zen herrian eta asko gustatzen zitzaizkion txakurrak. Egun batean kalera irten zen, txakur bat ikusi eta galdetu zion

- zelan daukazu izena?
- Ba nik, Zuri dut izena eta ez daukat amarik ez aitarik.
- Ba etorri nirekin - esan zion.
- Erantzun zion txakurrak:
- gose naiz.

Eta jaten eman zion.
Handik aurrera zoriontsu bizi ziren.



**Irati Oria Ikaran**
"Igeri egitea, jolastea, dantzatzea eta abestea ditut gogoko"



# Txantxan gorria basoan

Baren behin txantxangorri txiki-txiki bat.
Egun batean basora joan zen eta hartz
bat ikusi zuen. Hartzak egun on esan zion
txantxangorriari. Orduan txantxangorriak
berdin erantzun zion. Egun honetan hartza-
ren urtebetetzea izan zenez, hartzaren
etxera joan ziren eta ondo baino hobetoago
pasatu zuten. Hartzaren etxean lagun
onak egin ziren eta txantxangorria egunero-
-egunero basora joaten zen hartza ikustera.
Ordutik aurrera lagun handiak izan ziren
eta pozik eta alai bizi ziren. Hori halan
bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila
Gernika-Lumoko plazan.







## Ane Miren Arejita

"Nik nagusitan andereñoa izan nahi dut"

### Basoko zuloa

Maite eta Aitor lagun on bi ziren. Biak basora joatea erabaki zuten. Bidetik doazela zulo bat aurkitu zuten. Begiratu eta arraultza batzuk zeuden Aitorrek bat hartu zuen. Eta suge-ama bat agertu eta Maiteri bernan pozoina sartu zion. Maitek ezin zuen ibili eta Aitorrek lagunduta hango baserri batera joan ziren. Han amona zahar bat bizi zen. Amonak pomada bat belarrekin egin zuen. Maiteri eman zion eta benda bat ipini eta etxera joan ziren.





**Aitzol Onaindia**

"Nire aita eta ama moduan, kazetaria izatea gustatuko litzaidake, eta Euskal Telebistan edo Bizkaia Irratian lan egin"

## LEHOIA ETA BI SAGUAK

Bazen behin lehoi bat oso lasai bizi zena. Ez zeukan ardurarik. Egun batean, lo zegoela, sagu bi agertu ziren eta lehoiaren inguruan tenisean jolasten ari ziren. Lehoiaren buztana sare moduan erabiltzen zuten. Jolasten zeudela eta beraiek konturatu gabe lehoia esnatu zen. Saguak ez ziren konturatu, bakarrik zeuden tenisean jolasten eta. Lehoiak sagu biak harrapatu eta raketa eta guzti jateko prest zegoen.

Jateko zegoela sagu biak abesten hasi ziren eta horrela lehoia berriro lo geratu zen.

Une horretan saguek aprobetxatu zuten ihes egiteko.



Aitzol Onaindia L.H 2.B



L.H. 2. MAILA • *Siberian izoztutako dinosauroak*

**Aimar Ellis Luzarraga**
"Entziklopediak irakurtzea asko gustatzen zait"

# SIBERIAN IZOZTUTAKO DINOSAUROAK

Barzen behin etxetxoa tiki bat Siberian. Eta elurrez estalita egoten zen neguan. Andres eta Iñigo euren aita eta amarekin bizi ziren. Amak gauero dinosauroen liburua irakurtzen zien baina egun batean altxorra aurkitzen jolastu zuten baina lurpean zerbait zoragarria topatu zuten. Andresek esan zion Iñigori: - endredo! begira zer aurkitu dudan!. Dinosauroen hanka bat.

Bi anaiek hiru dinosauro atera zuten. Izoztuta atera zuten. Bat karnotauroa izan zen, bigarrena brakiosauroa eta hirugarrena parasaurolopusa. Eguzkia egon zenez desizoztu egin ziren. Eta bi anaien lagun egin ziren.



Baina egun horretan meteorito bat jausi zen Siberian. Eta mundu guztia ezkutatu zen. Baina dinosauroak eta bi anaiak koba ilun batean ezkutatu ziren. Herri guztia erretan zegoen eta bi anaiak ikusten zeuden



Kobaren amaieran oihana bat zegoen eta oihanearen barruan dinosauro pila bat zegoen. Atzetik ama eta aita zebiltzaten. Andres eta Inigo aurkitu zuten eta esan zieten beraiekin bizitzeka. Dinosauro guztien lagun egin ziren eta ongi bizi izan ziren betirako.



Aimar Ellis Luzarraga 2. maila



**L.H. 2. MAILA** • *“ Pinki ” nire txakurra*

**Ibon Etxegarai Arana**
"Ipuinak idaztea asko gustatzen zait"

# "Pinki" nire txakurra

Ni txikia nintzenean nire aitak txakur txiki bat ekarri zuen etxera, oso pozik jarri ginen familia guztia. Bere izen ofiziala "Linda flor de los jardines" zen baina "Pinki" jarri genion. Bere kolorea horia zen, eta ile kiribildua zuen tamainoa ertaina, oso azkarra eta urduria, indartsua eta apur bat bihurria zen.

Bere jatorria ehiza txakurra izatea zen baina gurekin laguntzako txakurra zen. Gure etxe berrira bizitzen joan ginenean salto-saltoka eta bira ta bira hasten zen solo erditik.



Gurekin joaten zen leku gustietara, mendira, hondartzara eta abar. Auzoko txakurrik ausartena zen baina suziriek tximista eta trumoiekin asko beldurtzen zen.

Egun batean, Errege bezperan, Erregeak Mareatako etxeetatik pasatzean suziriak eta bolanderak botatzen zituztenean "Pinki" kanpoan zegoen eta beldurturik ihes egin zuen, hiru egun ibili ginen topatzen, aurkitu gabe.

"Pinki" desagertu da baina betirako egongo da gure bihotzetan



Ibon Etxegarai bigarren maila L.H.
Aiara





**Ane Camara Barrenetxea**

"Animaliekin egotea nire gusto handia da"

# IZURDEAK ETA MARINELAK

Onain dela urte asko gertatu zen istorio hau, zazpi ozeanoetako batean, ozeano Barean hain zuzen ere. Han, izurde pila bat bizi zen. Zuek jakingo duzuenez izurdeak gu bezala ugaztunak dira eta familietan bizi dira, elkar laguntzeko.

Sasoi hartan Ozeano Baretik hainbat belaountzi pasatzen zen. Orduan motordun itsasontziak zeuden legez, gizonek itsasoz garraiatzeko belauntziak erabiltzen zituzten.

Egun baten marinel batzuk Sydneytik pasatu zirenean ez zuten suerte handirik izan. Zerua ilun-ilun zegoen eta ekaitza egingo zuela ematen zuen. Haietako marinel batek esan zuen:

- Eguraldi honekin ezin izango gara Hego Amerikelara heldu, pentsatuta geneukan egunean. Gure ibili behar dugu ekaitzarekin.




Gaua gainean zutela, nekatuta oheratu ziren, baina ez denak batera, txandak antolatu zituzten. Batzuk lotan zeuden bitartean, besteak ekaitza

zaintzen gelditu ziren. Zaintza egiten zeudenak bildurturik zeuden, eguraldia txarrerantz zihoalako.



Halako batean trumoi ikaragarri bat entzun zen eta jarraian tximista handi batek bela nagusia erdibitu zuen. Egoera gero eta larriagoa zen eta marinel gizajoek hurbil ikusten zuten heriotza.

Bapatean izurdeak konturatu ziren eta marinelen laguntzera joan ziren, multzo handi bat eginez. Sokak ahoan sartu eta tiraka hasi ziren irla bateko kaira heldu arte.



Marinelak han geratu ziren belaontzia konpontzen zuten bitartean. Lana bukatu zutenean, poz-pozik Hego Amerikatarantz zuzendu ziren. Marinelak Hego Amerikatara izurdeen laguntzari esker heldu ziren.

Arrezkero marinelak eta izurdeak oso lagunak dira.

Egilea: Ane Camara Barrenetxea

Marrazkilariak: Andere Zalbidea Botran, Bingen Gutierrez.





**Ainhoa Celaya, Janire Intxausti, Elisabeth Vellisca**
Zaletasunak: saski baloia, esku-lanak eta irakurri

# SORGIN GAIZTOA

Oraim dela urte asko bazen sorgim gaizto bat gaztelu zahar batetan bizi zena.
Bere senarra magoa zen eta trukoak egiten zituen.
Sorgim gaiztoak dirua nahi zuen.
Bere senarra oso ona zen baina biak oso pobreak ziren



Egun batean magoa kalera irten zen; mahai txiki batetan magia egiten hasi zen eta ume mordoa hurbildu zitzaion dirua ematera. Gero sorgin gaiztoak magoari dirua kendu zion eta berriro pobrea gelditu zen. Baina sorgina oso zaharra zen eta hiltzeko zorian zegoen.

Magoa ordez, oso ona zenez sor-gina lagundu nahi zuen eta horre-tarako pozima bat prestatu zuen. Edaten zuen momentuan sorgina sendatu egin zen.

Sorgin gaiztoa jarraitzen zuenez bere senarrak ona bihurtzeko magia egitea erabaki zuen eta lo egiten

zegoenean magien bidez orra
bihurtu zen.
Hortik aurrera pozik bizi ziren
elkar eta dirua banandu zuten.



Egileak: Ainhoa Celaya
Jomire Intxausti
Elisabeth Vellisca

3. maila

**Dani Basterretxea, Unai Intxausti,**
**Beñat Zabalgauregi**
Zaletasunak: futbola, eskupilota, plastika eta irakurri.



# TXAKURRAK

Bazen behin pointer motako txakur bat Dok deitzen zena.

Egun batedan parkera joan zen eta Kanitze izugarri polita, oso dotorea ikusi zuen.

Gure txakurra Dok oso triste gelditu zen Kanitzearen ondoan doberman bildurgarria bat zegoelako; oso indartsua.

Kanitzea bakarrik zegoen eta lagun bat eduki nahi zuen



Goiz batetan pointerra eta dobermana txakurrarekin nor joango zen jakiteko lehiaketa bat egitea pentsatu zuten.

Mila eta berrogeita hamar metroko eta elurragaz zegoen mendi bat igon behar zuten.

Probak hasi ziren: dobermana elurra zegoen lekura heldu zen, irrist egin eta elurretara jausi zen.

Dokek berriz jarraitu zuen baina ankak izoztu zitzaizkion eta bera ere erori zen.

Txarto zeudenez biak beherantza joatea erabaki zuten.

Biak galdu zuten proga baina beste aldetik lagun minak egin ziren eta Kanitzearekin batera poz pozik ibili ziren.

EGILEAK: Dani Basterretxea
Unai Intxausti
Beñat Zabaljauregi
3. maila

**Kevin Aguirre**
"Futbolera jolastea asko gustatzen zait"



# "Azeria, gizakia eta tximeleta"

Behin batean gizaki oso txikia eta jatorra bizi zen herri batean baina erregeak animalia bat nahi zuen. Erregeak esan zion gizaki bati:

-Ahal zara joan animalia baten bila?

Eta gizakiak esan zion:

-Bale, baina gero dirua eman behar didazu.

Gizakia joan zen bere maskotarekin. Bere maskota azeri txiki bat zen. Orduan bizikletan igo eta basorantz abiatu zen. Han topatu zituen tximeletak, basurdeak, arranoa eta loro bat.



Gero esan zuen gizakiak:

-Zein eramango diot erregeari?

Hmmmm...... tximeleta eramango dut! Gizakiak tximeleta hartu eta kutxa batean sartu zuen. Bizikletan igo eta herrirantz abiatu zen. Orduan erregearengana joan zen eta esan zuen:

– Nahi duzu maskota hau?

eta erregeak esan zuen:
-Baina, zein animalia da?
Gizakiak esan zuen:
-Trizikleta bat da.
Azkenean erregeak dirua eman zion gizakiari
eta ondo bizi ziren.



Kevin Aguirre
3. maila



**Iker Bilbao Ugarte**
"Asko gustatzena zait irakurtzea"

# ELURRETAKO JAUNA

Bazen behin elurretako jaun bat. Burua zuri-zuria zuen, begi handiak, aho handia eta hagin zorrotzak.

Gorputz zuria, beso zuri indartsuak eta hanka luzeak zituen.

Behin lantza hartu eta oreina ehizatzera abiatu zen baina oreina azkarragoa zen korrikan.

Baina elurretako jaunak ez zuen amore eman, lantza jaurti zuen eta oreina jo zuen lantzak. Hanketatik heldu zion oreinari eta aitzulora eraman zuen.

Afari goxo-goxoa du gaur gauean elurretako jaunak!!.

Betekada itzela egin zuen eta gero oheratu egin zen zeren bihar goiz jaiki behar baitzen ehizan joateko.

Hurrengo egunean, jaiki zenean, kanpoan leopar-doak zeuden baina ezin zituen leopardoak ehizatu.

Indar handia dute eta oso azkarrak dira horregatik ezin zituen leopardoak garaitu. Azkenean leopardoen laguna izan nahi zuen eta irten egin zen leopardoengana eta esan zien:

-Kaixo. Nire lagunak izan nahi al duzue?

-Lehenik nor zaren jakin behar dugu, esan zioten leopardoek.

-Ni elurretako jauna naiz, erantzun zuen.

-Bai. Zure lagunak izango gara.

Eta pozik bizi ziren denak aitzuloan.

Horrela elurretako jaunak arazoren bat zeukanean leopardoek laguntzen zioten.





**Itsaso Zabala**

"Orain arte ikusi egin nauzue, orain irakurri egingo nauzue"

# "MISI" KATU KUTUNA.

Behin bazen mendi batean bizi zen agure
zahar-zahartxo bat. Agurea mendi
tontorrean bizi zen bere katu kutunarekin.
Katuak "Misi" zuen izena eta aguretxoari
laguntasuna ematen zion, bera bakar-
bakarrik bizi zen eta. Egunero biak elkarrekin
esne-zopak gozaltzen zituzten.

Egun argi-argitsu batean, gozaldu bezain
laster, katua etartera irten zen.

Bertan, bere eskuineko hankatxo zuri-zuri-
arekin erpainak miazkatzen zegoela, zerurantz
begira geratu zen eta bapatean zera
pentsatu zuen:

-Gaur, hain eguraldi ederra dagoenez,
bueltatxo bat ematera noa.

Etxe barrura sartu eta bere jabeari esan zion:

-Aitxu, zu hor lasai-lasai zauden bitartean, ni basorantz noa.

-Bai, ondo da! - erantzun zion aulkian eserita zegoen aguretxoak.



Katutxoa irrilarretsu irten zen. Txorien txio-txio alaiak entzunez han zihoan. Batzutan korrikan, beste batzutan, aldiz, zuhur-zuhur, geldi-geldi geratzen zen zerbait ehizatzekotan. Konturatu gabe, geldi-geldi zegoela bere atzetik txakur bat hurbildu zitzaion. Txakurrak ezer esan gabe, zast! buztanatik heldu eta zatitxoa kendu zion. Han zebilen Miri giraka eta biraka, miauka, alaruka. Harantz eta honantz begiratu arren, ez zuen ezer ikusten.

Buztana aurrerantz ekarri, bere mihiarekin miarkatuz, erdi negarrez, odolez betetako muturtxoarekin etxerantz abiatu zen.

Agurettoa etartean zegoen bere zain.

- Miau-miau! eginez zetorren lau hankatan.

- Bai laztan, kutuna, etor zaitez, hemen naukazu eta! - esan zion.

Agurettoa harrituta geratu zen gauza hura ikustean.

- Jainkoarren! - Zer gertatu zaizu?

- Ez dakit, lasai-lasai egon naizenean pintiren batek begiratu zer egin didan!

Bere aurreko hankatxoekin aurpegiari igurtziak eginez, jabearen albo-alboan geratu zen. Ugaza-bak igurtziak egin eta berak osatuko ziola esan zion.

Katxalba zahar okerra hartu eta etxaurreko belartzarantz abiatu zen gizon zahar hura.

Bertan, belar batzuk batu eta eskukada belarrez bueltatu zen. Lapiko zahar bat hartu, urez bete sartu belarrok eta sutean jarri zuen irakin egin arte. Egositakoan, belar ura hartu eta hona etor zaitez esanez burtana osatzen hasi zitzaion. Misi oso gustora zegoen.

Egun hartatik aurrera, Misik ez zuela sekula santan bakarrik etxetik irtengo esan zuen.

Eta egia ala gezurra begi bien artean sudurra.



ITSASO ZABALA

9 URTE

**Alexander Herrero**
"Nik handitan pelotaria edo futbolaria izan nahi dut"



# MAMU BAKARTIA

Bazen behin etxe sorgindu batean bizi zen mamua. Ez zuen lagunik gaizoak eta oso triste zegoen beti. Arratsalde batean ume batzuk hurbildu ziren mamuaren etxera eta hau oso pozik euren gana hurbildu zen, baina umeak izututa korrikan eta garrasika ihes egin zuten. Mamua orduan negarrez hasi zen pentsatuz: - ez dut inoiz lagunik izango?



Alboko herrian oso ausartak zirela esaten zuten mutil batzuk bizi ziren eta egun baten hauek hurbildu ziren mamuaren etxera. Mamua euren bila irten zen eta haiek izututa korrika

hasi ziren baina batek esan zien:

- eehhh! ez gara gu herriko mutilik ausartenak? Ez dugu korrika egin behar koldarren moduan.

Orduan atzera itzuli eta mamuarengana joan ziren:

- Kaixo nor zara eta zer egiten duzu hemen? Gaiztoa zara?

- Ez, ona naiz eta etxe honetan bizi naiz bakarrik, ez dut lagunik, zuek nahi duzue nire lagunak izan?

- Bale gaur jolastuko dugu eta ondo pasatzen badugu beti etorriko gara.

Oso ondo pasatu zuten arratsaldea, ezkutaketara etxe handi hartan leku asko zegoen ezkutatzeko. Geroago elkarri harrapatzen, zuhaitzetara igotzen...

Lagun minak egin ziren eta umeak egunero joaten ziren mamuarengana. Ze pozik zegoen mamua, azkenean benetako lagunak aurkitu zituen!

Alexander Herrero
SanFidel 4.B



**Ane Gartzia Rivero**

"Handitan Albaitaria izan nahi nuke, baina txakurra edokitzearekin konformatuko nintzateke"

Ane Gartzia
Rivero LH 4B



# ITSASO

Bazen behin Itsaso izeneko neskatila bat, bere ama eta bere aitarekin bizi zena. Bere aita arrantzalea zen eta bere ama etxeko andrea.
Familia, portuaren ondoan bizi zen eta Itsasori asko gustatzen zitzaizkion arrainak, hain beste ae-rekin hitzegiten zuela.
Behin arrainekin eta izurdeekin jolasean zebilela itsasuntzi bat apurtu eta bere petrolio guztia botatzen hari zenean Itsasok bere aitak esan ziona gogoratu zuen. Antzina itsasuntzi handi bat apurtu zen eta bere petrolioa botatzen aritu zen bost urtetan, eta gosea pasatzen aritu ziren bost urte horietan. Orduan Itsasok hori ez gertatzeko ideia bat izan zuen; bere lagun izurdeei esan zien baleei esateko petrolioa kentzen laguntzeko. Izurdeek Itsasori kasu egiten zioten eta horrela egin zuten. Izurdeek baleei esan zioten eta baleek horrela erantzun zuten:
-Bai! egingo dugu baina sare bat beharko dugu.
Izurdeek Itsasori esan zioten baleek esandakoa, eta Itsasok sarea





eman zien haiek gero, hauek baleei emateko. Izurdeek baleei eman zioten eta baleek honela egin zuten:
Sarea hartu eta itsasuntzia zegoen tokira joan ziren. Orduan baleek sarea itsasuntziari lotu zioten eta portura eraman zuten petrolioa hondartzetara ez joateko. Han jende pila zegoen eta jende guztiak txalotu zituen Itsaso eta baleak. Horri esker ez zen ezer gertatu.

